

# ISTORIO BAT

Testua eta irudiak: MARIANNA COPPO

Itzulpena: FERNANDO REY ESCALERA

Kartoi gogorrean egina. 23 x 27 cm. 48 or. 15 €.

**Istorio bat** (euskara)

ISBN 978-84-9172-054-6. Autore liburuak. Lehen irakurleak.

**Una historia** (gaztelania)

ISBN 978-84-8464-403-3. Obras de autor. Primeros lectores.

**Unha historia** (galegoa)

ISBN 978-84-8464-398-2. Demademora.

**Un conte** (katalana)

ISBN 978-84-16804-54-2. Obres d'autor. Primers lectors.

**Uma história** (portugesa)

ISBN 978-989-749-103-0. Obras de autor. Primeiros leitores.

*Bazen behin orrialde zuri bat.*

*Ez oso denbora luzerako, ordea.*

Besoak gurutzatuta gelditu edo zerbait egin; aspertu edo dibertitu. Jarrera kontua da azken batean. "Istorio bat" liburuko pertsonaien artean, bakar batek erabakitzen du denbora aprobetxatzea; besteek, berriz, nahiago dute egonean egon, egin behar duten lanaren zain egon. Honetaz eta hartaz ari diren bitartean, "Godoten esperoan" izenekoan bezalaxe, ez dira ohartzen beren laguna kolorez eta abenturaz beteriko mundu bat eraikitzen ari dela baliabide bakar batzuekin: lapitz batzuk eta mugarik gabeko irudimena.


*Laugarren pareta* hautsiz –sormen-lanaren eta publikoaren arteko muga ikusezin hori–, liburuaren barrenean zer dagoen ikus daiteke; Marianna Coppok modu efektistan eta harrigarrian garatzen du ideia hori gogoeta premiazko bat pizteko: konformismoa, apatia, segurtasun falta, ezezagunari diogun beldurra, eta, horren guztiaren aurrean, ekimena, ausardia eta norberaren eta gainerakoen mesedetan inguruan duguna hobetu nahia.

Azkenik, istorioa gutun modura ailegatuko da zain urduri dauden hartzaileegana; liburu honekin egileak irakurleen esku uzten duen *presako gutuna* gutun-azal modura ageri da azalean eta kontrazalean. "Istorio bat" umoreagatik ere nabarmentzen da, protagonistek duten elkarriketa ia telegrafikoen freskuragatik, isiltasunaren eta zuriuneen tratamenduagatik, fantasia handitu ahala txikiagoak baitira.

www.**Kalandraka**.com

comunicacion@kalandraka.com

www.**Pamiela**.com  
etxea  
soltxate@pamiela.com



■ **Galak:** la irudimena eta ekimena, aspertzearen eta apatiaren kontra.

■ **Adin egokia:** 3 urtetik gora.

■ **Nabarmentzekoak:** aurkezpena, gutun modura; "Godoten esperoan" obraren eragina; umorea, koloreak; liburu bati buruzko liburu bat da, bukaerarik gabea.

■ **Liburuaren aurrerapena:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/istorio-bat-eusk>

## Marianna Coppo

(Erroma, 1990)

Irudigintza ikasi zuen MiMaster-en, Milanen, eta gero marrazkigintza eta kontakizunetan zuen prestakuntza hobetu. Gaur egun haurrentzako liburuen irudigilea da, baita Tentacoli zigiluaren sustatzaileetako bat ere (fanzineetan eta artisautzako proiektuetan aditua den zigilu independentea).

